

Albisteak

Giza Eskubideen inguruko hainbat itun euskeraz

Euskadi.net Eusko Jaurlaritzaren atarian Giza Eskubideen inguruko hainbat itun euskeraz irakur daitezke. Zehazki, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Web-orriko Giza Eskubideei buruzko atalean, www.jusap.ejgv.euskadi.net helbidean hain zuzen ere, Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala, Ekonomia-, gizarte-eta kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko itunaren bigarren Hautazko Protokoloa, heriotza-zigorra indarrik gabe uzteko helburua duena aurki daitezke. Horietaz gain, ondorengo konbentzioak ere euskeraz irakur daitezke: Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa, Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko konbentzioa, Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako konbentzioa, Haurren eskubideei buruzko konbentzioa, Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Derrigorreko desagertzeen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa eta Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioa.

Aipatutako guztiak, lehen aldiz euskeraz irakur daitezke, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (HAEE) burutu duen lanari esker. Itzulpena egiteko Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoan gaztelaniaz dauden testuak hartu dira oinarritzat.

Itunak PDF formatuan aurkezten dira, irakurtzeaz aparte behera kargatzea posible izanik. Etorkizunean testu gehiago itzultzeko asmoa dauka Eusko Jaurlaritzak.

Justizia Sailetik zer berri?

Irun, Azpeitia, Eibar, Amurrio eta Getxoko barruti judizialak bulego judizial berria ezartzen Espainiako lehenengoak

2010eko otsailaz geroztik, Irun eta Getxoko barruti judizialean burutu den esperientzia pilotua Eusko Jaurlaritzak arrakastatzat jo ondoren, bi hauetaz gain Azpeitia, Eibar eta Amurrio izango dira Estatuan Bulego Judizial Berria martxan jartzen duten lehen barruti judizialak. 2011. urtean aipatutako guztietan "Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesala" (ZLUP) martxan egongo da, orain arteko Epaitegien tamaina txikituz.

Bulego Judizial Berria martxan jartzeko operazioa Justiziako sailburuordeak zuzenean koordinatu dute, lehen fase batean zendu berria den José Manuel Fínezek (GB) eta ondorengoan María Victoria Cintok.

Aldizkari honetako Epaiak eta Epaitegiak atalean irakur daitekenez, Bulego Judizial Berriaren helburua herritarrei eskaintzen zaien Justiziaren kalitatea hobetzea da, Epaileei beren lana errazteaz batera. Gainera, Idazkari Judizialek beren funtzio berriak egikaritzeko tresna egokia izango da.

Ministerio Fiskalaren Lurralde-Antolaketan aldaketak burutzeko Batzorde Mistoa

50/1981, abenduak 30eko legea, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duena, 24/2007, urriak 9ko legeaz aldatu ondoren, Epaileari justizia egiten laguntzen dion erakunde honen lurralde antolaketa aldatu egin da. Berau Euskal Erkidego Autonomoan era eraginkorran burutzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Fiskaltzak Koordinazio Batzorde misto bat eratu dute. Batez ere, giza baliabideen eta baliabide material eta ekonomikoen erabileran bi erakundeen arteko lankidetzak hobetu nahi dute.

Sinatutako lankidetzak-hitzarmenarekin bat sortutako Batzorde mistoak ondorengoak izango ditu eginbehar nagusi: giza baliabideen horniketa, programa informatiko eta ordenagailuen eguneratzea, Fiskaltzari esleitutako lokalak eta egoitzak, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailarentzat eta Fiskaltzarentzat interesgarriak diren dokumentazioa eta argitalpenak, lankidetzak hitzarmenak, prestakuntza jarduerak eta bi erakundeen arteko jarduerak koordinatua galdatzen duen beste edozein gai edo kontu.

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

ELERIA aldizkaria on line



Denbora berriekin bat eta irakurleei gure aldizkariaren irakurketa eta beronen artikuluen erabilpena errazteko, azkenean lortu da *Eleria*. *Euskal Herriko Legelarien aldizkaria* on line jartzea. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/eleria> helbidean lehenengo zenbakitik hemezortzigarrena arte irakur daiteke. Sarrera dohainikakoa da eta zalantza gabe gure lana irakurle ororen eskura jartzeko bide egokia da. Erreza eta eroso, eserita eta etxetik atera gabe, teknologia berriak zuzenbidearen eta euskararen mesedetan.

Bibliografia

Legeak

Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoari buruzko legea = Ley de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco. - Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010 ; 85 or. - ISBN: 978-84-457-3065-2. - (Legeliburu bilduma ; 55).



Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko legea = Ley de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. - Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010; 401 or. - ISBN: 978-84-457-3066-9. - (Legeliburu bilduma ; 110).



Jaurlaritzaren Legea = Ley de Gobierno. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010; 133 or. - ISBN: 978-84-457-3064-5. - (Legeliburu bilduma ; 3).



Monografiak

IMAZ, Leire; PETRIRENA, Patxi; IGERABIDE, Juan Cruz; LETURIA, Ana. *Kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko Legea = Legislación sobre consumidores y usuarios.* Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2010; 302 or. - ISBN: 978-84-9860-449-8. - (Legeak - Leyes Bilduma ; 11).

EHUK, Zuzenbide Fakultatearen eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren laguntzarekin, argitaratzen duen Legeak-Leyes bildumako hamaikagarren lan honek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eta babeserako arau nagusiak jasotzen ditu.

ORDEÑANA, Ixusko. *Arbitrajea. Gatazka juridikoak konpontzeko beste baliabidea.* Donostia: Hiria argitaletxea, 2010; 236 or. - ISBN 978-84-9797-373-1.



Liburu honek espainiar ordenamendu juridikoan arbitrajea, liskarrak ebazteko baliabide osagarri gisa, aztertzea du xede. Lan hau osatzen duten orrialdeek horrela egiten dute era oso, sistematiko eta kritikoan, analisi objektiboa eta subjektiboa uztartuz. Gainera, gai honen inguruan euskaraz azterketa sakon bat egiten duen lehenengo lana da. Horregatik, hizkuntza honetan epaibidetik kanpoko teknika honetara hurbildu nahi duen edonorentzat –unibertsitateko ikasle, Zuzenbidearen inguruko langile, zein beste edozein– ezinbestekoa da.

ORDEÑANA, Ixusko. *Lan-Zuzenbide Jurisdikzionala. Azterketa objektiboa eta kritikoa.* Bilbo: UEU, 2010; 348 or. - ISBN: 978-84-8438-289-8.



Lan honetan espainiar ordenamendu juridikoan aplikatzen den Lan Zuzenbide Jurisdikzionala aztertzen da. Horretarako, lehenengo hiru kapituluetan Lan Zuzenbide Jurisdikzionala deritzon zuzenbidearen arloa Zuzenbide Jurisdikzional orokorrean kokatzen da, honen oinarriko elementuak (jurisdikzioa, akzioa eta prozesua) lan-arloa aplikatuz. Liburuaren bigarren zatian, sei kapituluatan zehar, Lan Arloko Prozeduraren Legearen islan, lan-arloan epaileek herritarrei eskaintzen dizkieten adierazpenezko, betearazpenezko eta kautelazko babesak jorratzen dira. Bukatzeko, azken kapituluak, azterketa objektiboa eta subjektiboa uztartuta, egun langileen eta ugazaben arteko liskarren epai bidezko konponketak aurkezten dituen indarrak eta ahuleziak mahaigaineratzen dira, araudia hobetzeko hainbat proposamen eginez.

Artikuluak

ARRIETA, Javier. “Alokairuak irenstea eta konpentsatzearen printzipioa dela eta (Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2008ko apirilaren 24ko epaiaren iruzkina)”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 17 zk., 2009; 273-282 or.

Jurisprudentzia iruzkin honetan autoreak Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2008ko apirilaren 24ko epaiari erreparatu, alokairuen irenstea eta konpentsatzearen printzipioa jorratzen ditu.

ARRIETA, Javier. “Estatutuz kanpoko hitzarmenen eragingarritasuna, estatutu-izaerako hitzarmenak eta enpresa-akordio edo -itunak (Auzitegi Gorenaren 2008ko ekainaren 24ko epaiaren iruzkina)”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 17 zk., 2009; 259-272 or.

Jurisprudentzia iruzkin honetan autoreak Auzitegi Gorenaren 2008ko ekainaren 24ko epaiari so eginez, lan zuzenbidearen iturri propio diren hitzarmenen eragingarritasuna du hizpide.

ARRIETA, Javier. “Lan-zuzenbidea eta gune ilun gisa kalifikatutako harreman juridikoak (II): Telelanaren inguruko zertzelada batzuk”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 17 zk., 2009; 201-222 or.

Artikulu honetan espainiar ordenamendu juridikoan telelanaren araudiari eta hark lan baldintzetan sor ditzakeen gorabeherei erreparatzen zaie.

ATXABAL, Alberto. “Europaren babesak Euskal Ekonomi Itunarentzat (Europako Erkidegoetako Auzitegiak 2008ko irailaren 11n eman zuen epaiari eginiko iruzkinak)”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 19 zk., 2009; 237-288 or.

Autoreak Europako Erkidegoetako Auzitegiak 2008ko irailaren 11n eman zuen epaiak Euskal Ekonomi Itunari Europako Erkidegoetako Zuzenbidearekin egokitzeko ekarri dion babesaren nondik norakoak azaltzen ditu.

GAMINDE, Eva. “Konkurtso-esparru berria, krisialdia dela bide: 3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 18 zk., 2009; 149-195 or.

Artikulu honek 3/2009, martxoak 27ko Errege Dekretua, egoera ekonomikoaren eboluazioaren aurrean tributu-, finantza- eta konkurtso-arloetarako presazko neurriei buruzkoa, du aztergai. Zehazki, Estatuko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 31an arautu zen arauak konkurtsoaren eremuan sortutako aldaketak eta beren ondorio nagusiak azaltzen ditu.

JIMENO, Roldán. “Nafarroako erlijio-erakinen jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat”, In: *Uztaro*, 71 zk., 2009; 71-85 or.

Artikulu honetan Nafarroako erlijio-erakinen jabetza ikuspegi historiko-juridikotik jorratzen da. Autoreak, Zuzenbidearen historiaren eremutik, lau elementu argitzen ditu: patronatuaren izaera eta jabetza, eraikinen tipologiak, Estatu liberaleko desamortizazioa eta frankismoaren legedia. Gainera, Zuzenbide positibotik hausnarketa iushistoriko bat aurkeztuen du.



MORENO, Gorka. “Gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak EAEn: oraina, erronkak eta Etorkizuna”, In: *Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria*, 85 zk., 2009; 163-191 or.

Artikulu honetan Euskal Autonomi Erkidegoan burutzen ari diren gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak aztertzen dira, bere erronketan eta etorkizunean indar eginez.



URRUTIA, Esther. “Oinordeko izateko ezduintasuna estreinakoz araututa, Balear Uharteetako zuzenbide zibilean, apirilaren 27ko 3/2009 Legearen ondorioz”. In: *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 18 zk., 2009; 95-148 or.

Artikulu honek Balear Uharteetako zuzenbide zibilean oinordeko izateko ezduintasuna 3/2009 legeak nola arautu duen azaltzen du. Gainera, kontu hau Katalunian, Nafarroan eta Euskal Erkidegoan nola arautzen den aztertzen du autoreak.